

EUS

Deskribapena: Armiarma eta armiarma-sareen imajinak ageri dira lehenengo eta internetaren imajinak ondoren.

Kike (off ahotsa): Baliteke, zuetariko batzuentzat desatseginak izatea, beste batzuek ordea maskotatzak hartuko zenituzkete gustora asko. Denak ados egongo zarete ordea beraien sareak ingenieritza obrak direla esaten badugu. Baina gaur egungo sare garrantzitsuena internet da, mundu osoa konektatzen duen sarea eta euskarak ze paper du mundu digital horretan? Beste hizkuntza askok ez bezala, ahotsa bederen badu.

Deskribapena: Kike museo baten barruan ageri da.

Kike: “Adibidez wikipedia berrehun eta laurogeita zazpi hizkuntzatan erabili genezake eta horien artean euskara hogeita hamabosgarren lekuan dago ehun eta laurgogeita bat mila artikulurekin. Twitter berriz hogeita hamahiru hizkuntzatan dago; horietako bat euskera da eta euskera da gainera twitterren gehientsuen erabiltzen den hizkuntza gutxituetako bat, berrehun mila txio inguru bidaltzen dira hilerok. Eta Youtube, Google, Twenti eta Facebook ere euskeraz erabil genitzake.”

Deskribapena: Euskal Herriko jende eta hiri desberdinen imajinak ikusten dira orain.

Kike (off ahotsa): Eta aro digital honetan ondo finkatzeko, domeinu propio bat edukitzea bezelakorik ez dago.

Deskribapena: Kike Donostian Iratxe Esnaola puntu eus proiektuaren koordinatzailearekin elkarrizketan ageri da.

Kike: “Iratxe hasteko azaldu behar diguzu zer den puntu eus.”

Iratxe: “Bueno puntu eus domeinu bat da, Interneteko domeinu bat, beraz Interneteko helbidean idazten dugun azkenengo hitza da. Adibidez puntu com-eko berez hasiera batean komertzio elektronikorako izan behar zuen, gaur egun edozer gauza da, puntu org elkarreentzat da baina gaur egun ere pixkat nahastu da baina puntu eus sortu da euskara eta euskal kulturaren komunitatearen gaineko edukiak edukitzeko, alegia, euskaratik dator, eta euskara eta euskal kulturaren gaineko interneteko webguneentzat.”

Kike: “Askotan irakurri dizut puntu eus oso garrantzitsua dela, zergatik da garrantzitsua puntu eus edukitzea?”

Iratxe: “Domeinu propio batek ematen dizu kokapen bat interneten, ematen dizu aitortza bat nolabait nazioarte mailan, ba azkenean euskarak bere domeinu propioa duelako. Era berean euskararen sustapenean lagunduko du, gero eta euskarazko eduki gehiago egongo direlako eta gero barrura begira ere komunitateari dagokionean badago nolabaiteko sentimendu bat biltzeko gaitasun bat, ez? Eus-en azpian jende asko kokatzen da, ba sinbolo edo ikur bezala ere funtzionatzen duelako, beraz uste dugu, hemendik urte batzutara igarriko dugula benetan duen garrantzia. Orain teorikoa da baina uste dugu gerora igarriko dugula egin duen ibilbidea.